

# Jainkoak batu duena...

Prozedura euskaraz eginez gero ezkontideak banatzeko zailtasunak daudela salatu dute

**J**aainkoak batu duena, ez beza euskarak bereiz. Horrela laburbildu daiteke Abokatu Euskaldunen Sindikatuak salatu duen euskararen kontrako azken diskriminazio kasua. Donostiako epaitegi batean banatzeko prozedura hasi duen bikote ezkondu bati neurrigabe ari zaio atzeratzen banaketa, euskaraz egin dutelako eska-bidea.

Luis Fernandez / Donostia



Abokatu Euskaldunen Sindikatuak egin du salaketa. Argazkia sindikatu hori aurkeztu zen eguneko da.

XOUSE SIMAL

eta ebazpenak euskaraz jaso nahi zituztela. Sindikatuak zehazten duenez, «aurrez eta garaiz» egin zuten eskabide hori, eta beren eskubidea «bermatua gera zedin neurriak hartzea gal-datu» zuten.

Hala ere, duela hilabete, epaitegira azaltzeko eskatu zieten, gaztelania hutsez jaso zuten jakinarazpena. Bikotea, dena den, joan egin zen eskatutako agerraldira, joan den abenduaren 22an. Beren hizkuntza eskubideak bortxatuak zeudela jakinarazi ondoren, epaitegiko idazkari Mari Carmen Marinek erantzun zien euskaraz egin nahi izanez gero idatziz eskatu behar zutela hori. Idazkariak, hortaz, agerraldia bertan behera uztea erabaki zuen, eta ezkontide eta abokatuei esan zien ez zela berriz egingo otsailera arte, gutxienez. Abokatu Euskaldunen Sindikatuak dioenez, ez dago «inongo betebeharrak legalik euskaraz jardun nahi izanez gero eskaera

hori idatziz egiteko». Gainera, eskaera berez egin zegoen, ahoz bada ere.

Banatu nahi duen pertsonetako baten abokatuak epaitegian jakinarazi zuenez, «gaztelaniaz egin nahi bada agerraldia, ez dago inolaz ere hori idatziz adierazi beharrik, eta, noski, ofizialtasuna dela medio, euskaraz egin nahi izanez gero ere».

**Formulario guztiak euskaratuta daude** • Sindikatuak gogorarazten duenez, Gipuzkoako Abokatu Elkargoko Euskara Batzordeak euskaraturik ditu familia arloko prozedurak euskaraz eraman ahal izateko behar diren formulario guztiak. Horregatik, «nabaria da epaitegiaren borondate falta osoa gai honen inguruan».

Epailearen eta idazkariaren jarreraz gain, Abokatu Euskaldunen Sindikatuak «justizia administrazioan euskal herritarrok bizi dugun *apartheid* linguistikoa» salatu du. «Euskaraz

bizitzea ezinezkoa dugu, eta saiatuz gero, garesti ateratzen zaigu. Isunak abokatuen aurka, zigorrak euskararen militanteen aurka, eta mesprezua eta kalteordainak eguneroko bizitzan euskaraz bizitzeko borondatea dutenen aurka». Sindikatuak alderatu egiten ditu abenduaren 18 eta 19an Gasteizko jardunaldietan entzundako «hitz politikak» eta 22an epaitegian gertatutakoa.

Kasua argigarria da euskaraz bizitzeak «eragozpena besterik» ez dakarrela ikusteko, Sindikatuaren ustez. Prozedura urtebetaraino aisa luza daiteke normalean bi hilabetetan amaitzen denean. Bikotearentzat kalte ekonomikoak ere ekarriko ditu, abokatu eta prokuradoreak luza-roan ordaindu beharko dituztela. Kalte moralak ere aipatzen ditu Abokatu Euskaldunen Sindikatuak, «banaketa batek berez suposatzen duena larriagotu egiten baita horrelako diskriminazioarekin». X

## Emakume bat jotzeagatik italiar bat espetxera Iruñean

■ Santurtzi hiru emakume artatu behar izan zituzten Gabonetan

Agentziak / Iruñea

BERE bikote ohia jotzeagatik atxilotu eta espetxeratu dute gizonetako bat Iruñean, atzo Udaltzaingoak jakinaz zue-nez. Atxilotutako gizona italiarra da izatez, Walter C. du izena eta 37 urte dauzka. Bere adiskide ohia gipuzkoarra da, 31 urteko emakumea.

Urte hasi zenetik bi aldiz eraso egin dio bikote ohiari gizonetako italiarrak Iruñean. Bigarrenean, urtarrilaren 13an, ahotik odola zeriola utzi zuen emakumezkoa Iruñeko erdiguneko kale batean. Udaltzainak hantxe atxilotu zuten erasotzailea. Emakumea, aldiz, ospitalera eraman behar izan zuten.

Emakumeak jakinarazi dionez 1997an r behin baino gehiagotan egin zion eraso eta zenbait salaketa ere aurkeztu zituen. Aurten, urtarri-laren 1ean ere eraso egin zion berriro ere. Orduan ere atxilotu egin zuten arren, libre geratu zen berehala.

Santurtzin, bestalde, joan den urtean tratu txarregatik 150 salaketa aurkeztu zirela jakinarazi zuen atzo Egizane. Talde feministaren arabera, joan den Gabonetan bakarrik, herriko hiru emakume artatu behar izan zituzten ospitalean euren bikotekideen jipoia jaso ostean. Kontutan hartzekoa da, gainera, gertatzen diren eraso guztien artetik %6 baino ez direla salatzen normalean.

Egizanen arabera, Santurtziko egoera sozioekonomikoak eragin handia du horretan. Asko eta asko bitarteko ekonomikorik ez duten emakumeak dira, eta etxea utziz gero, aurrera atera ezin izango dutela pentstazen dute. Illo horretan, Egizanek neurri eraginkorrak eskatu zituen, besteak beste, erasotzaileak utzi behar izatea etxea, emakume erasotzaileak ospitalera heltzean ofiziozko salaketak jartzea eta komisaldietan zerbitzu egokia ematea emakumezko hauei.

**Estatuko Fiskal Nagusiak arduraz jokatzeko eskatu die fiskalei** • Jesus Cardenal Estatuko Fiskal Nagusiak, bestalde, kasu horietan arduraz bereziz jokatzeko eskatu zien fiskalei atzo Nafarroako Unibertsitatean hitzaldi magistrala eman aurretik. Fiskal Nagusiaren arabera, fiskalek emakumeen kontrako eraso berri jaso beharko lukete urteroko memoriaren eta beste erakunde batzuetara jo «bizi dugun errealitate soziala modu osoagoan jaso ahal izateko».

## EAEn trafiko istripuek eragindako heriotza tasak nabarmen egin du behera amaitu berri den urtean

■ 1996 urtean 170 lagun hil ziren 14.901 istriputan; iaz, aldiz, 149 lagunek galdu zuten bizia 14.183 ezbeharretan

Erredakzioa/Donostia

**TRAFIKO ISTRIPIUEK** eragindako heriotza tasa %12,55 jaitsi zen iaz Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), 1996ko datuekin alderatuz gero. Ezbeharren kopuruak ere dexente egin zuen behera, ia %5. Portzentaia horiei erreparatuta esan liteke azken sei urteetako beherantzko joera konfirmatu egin dela aurreko urtean ere.

Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailaren arabera, ona izan da 1997. urteko istripu balantzea. Urtezahar gauerarte Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) errepedeetan, guztira, 14.183

istripu gertatu ziren, aurreko urteetan baino 718 gutxiago zehazki. Ezbehar horietan hildako pertsonen kopuruak are portzentaia handiagoan egin zuen behera, %12,35ean zehazki (170etik 149); zauritu kopurua ere %8,89 jaitsi zen.

Jaitsiera horrek Europako Batasunak errepede segurtasuna bultzatzeko egiten duen gomen-dio oso-osorik betetzen du. Bruselaren asmoa da Europako Batasuneko errepedeetan heriotza tasa %40 murriztea 1995etik 2010 urtera bitartean, eta EAEko errepedeetan azken sei urteetan %48 murriztu da zenbakia.

Beharakada hori Bizkaian nabarmendu da batez ere; probintzia horretan istripu portzentaiak ia 12 puntu egin du behera 1996 urtetik 1997ra bitartean. Araban aldea -%1,97koa izan da eta Gipuzkoan, aldiz, +%1,98koa. Heriotzak eragin zituzten istripuei dagokienez, Bizkaiko errepedeetan aurreko urteetan baino lagun gehixeago hil ziren iaz; Araban eta Gipuzkoan, berriz, heriotza tasak 20 punturen bueltan egin zuen behera.

Hilabetea, ekaina izan da, dudarik gabe, hilabeterik beltzena. Halere, 96ko hilabete okerrarenekin, (uztailarekin) alderatu-

ta, hobe izan zen aurreko urtekoa. 1996ko uztailean 22 lagun hil ziren 1.490 istriputan; joan den ekainean, oster, 17 pertsona hil ziren 1.340 ezbeharretan.

Trafiko Zuzendaritzaren arabera, lau dira istripu kopurua jaitsiarazi duten arrazoi nagusiak. Lehenengoa eta garrantzitsua, gidarien kontzientzia izan da; bigarrena, trafikoaren kontrolerako sistemak gehitu eta hobetu izana; igande eta jai egunetan auto astunei errepedeetan ibiltzeko debekua da hirugarrena; eta azkena, trafikoa zaintzeko lanetan Ertzaintzako agente gehiago jarri izana. X